



Ander Zubizarreta

Software ingeniaria

Irudia:

FreeGreatPicture / PMK

Alfabetatze digitala

“Irakurtzen eta idazten ez dakiena, alfabetatu gabea”. Hori da, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, *analfabeto* hitzaren esanahia. Analfabeto funtzional deritzogu, aparte, irakurtzen eta idazten jakin arren, gaitasun horiek eguneroko zereginetarako erabiltzeko gai ez denari.

Duela urte asko, idazten eta irakurtzen jakin gabe bizi zitekeen bat. Hala bizi zen biztanleriaren zati handiena. Gutxi ziren letratuak. Gaur egun, ia imajinaezina zaigu alfabetatu gabeko pertsonez osatutako gizarte bat. Asko aldatu dira kontuak. Eta aldatuaz jarraituko dute.

Nire ogibidean sarri joan behar izaten dut bezeroengana soluzio informatikoak ezartzera, eta behin eta berriz entzuten ditut: “Ordenagailua eta ni ez gara ondo konpontzen”, “ni ordenagailuarekin... puf!”, “eta orain ordenagailua erabiltzen ikasi behar dut?”, eta antzekoak, aplikazioa erabili beharko duen langilearengandik. Hori dioena erretiroa hartzetik gertu badago, zera pentsatzen dut: Tira, agian, arrazoi duzu, geratzen zaizunagatik, zertarako hasi orain honekin...”, baina harritzen nauena da kontu hauekin datorren langile gazte kopurua. Eta horrelakoetan, beste era batera pentsatzen dut; askotan, ozen: “Benetan uste duzu geratzen zaizun bizitza profesional luzean



–eta gero eta luzeagoan– ordenagailu bat ukitu gabe lan egin ahal izango duzula?”. Kasu honetan, industriaren sektorean.

Digitalizazioa ez da etorkizuna, oraina da. Eraldaketa hemen dago,

DIGITALIZAZIOA EZ DA ETORKIZUNA, ORAINA DA, ERALDAKETA HEMEN DAGO

eta moldatzen ez dena analfabeto funtzional bihurtzeko arriskuan izango da. Eguneroko zereginetarako gero eta gehiago darabilzkigu ordenagailu zein sakelakoak, eta erabiliko ditugu etorriko diren tresna berriak ere.

Nire belaunaldia nerabezaroan harrapatu zuen digitalizazioaren eztandak, Interneten hedakuntzarekin batera. Natibo digital deritze belaunaldi berriei, oraingo haurrak ia-ia sakelakoa besapean dutela baitatoz mundura. Ez diogu teknologiari beldurrik izan behar. Baina teknologian alfabetatu behar dugu, ekar ditzakeen arriskuak ekidin eta etekina ateratzeko. Natibo digital izateak berak ere ez baitu ziurtatzen analfabeto funtzional ez izatea, arkatz batekin hizkiak egiten jakiteak idazten dakigunik ziurtatzen ez duen bezala.

Horregatik da garrantzitsua teknologia berriei beldurra galdu, eta ezagutzak eguneratuz mundu digitaletan moldatzen ikastea. ■■■